

asteBURUKO PROPOSAMENAK >

Euskal giroan

Baiona > Sagardo Eguna
apailatu dute Baionako
ikastolek, Gau Eskola eta
Gure Irratiak larunbateko

NORA ARBELBIDE

Bederatzigarren urtearentzat ospatzen den besta honek 25 sagardo ezberdinen dasta eskainiko du, Baionako eta inguruko peña eta elkarteek zerbitzaturik, beren pintxoekin. Berritasunen artean, gidatzea hautatu duten pertsonak besta gozatzen ahalko dute Iparraldeko sagardo egileen sagar zuku dastatuz. Sartzean beren hau-tuaren berri ematea aski izanen da horretarako. Dastatzeak 21:00ak arte iraunen du nonbait han. Orduan dantzaren aldi helduko da. Patxi Perez bere taldekide ezberdi-

nekin egun horren lauzkatzaile fi-dela etorriko da oinen inarrotera. Aldi honetan ere arituko da mutxi-koen eta Europako herri dantzen markatzen eta irakasten bere oraingo lagunekin. Eta dantzare-kin bukatzeko Kiki Bordatxo tal-deak du lekukoa hartuko bere dan-tzaldien jakitatearekin, jendeak galdegina eskaintzeko.

Hots, egun bat bestaren eta eus-kal kultura oinarri, euskara urtee-tan sustatzen duten elkarteek zer-bitzuko. Baionako ikastolen, Gau Eskolaren eta Gure Irratiaren alde baitute muntatua dena.

Zehazki, besta 18:00etan hasiko da. Animazioa, haatik, goizago abiatuko dute txistulari eta trikiti-lariekin, karriketan barna Espai-niako atea helburu joanen baitira, Baionako Aviron errugbi taldea-ren sasoiako azken partida hasiko denean, Sagardo Eguneko gunean

ere jarraitzen ahalko dena. Errugbia, sagardoa, dantza eta kantua ere. Alabaina, doi-doia ha-mar urte bete dituen Baionan Kan-tuz ekimenak kantu andana bat kantatzeko parada emanen du goi-zean. *Tuntunak* grabatu duen lau-garren diskoaren ildotik, berriki entseatu duten Imanolen *Men-dian gora* kantu ezaguna izanen da Lacarre plazako berritasuna. Gero, merkatura joan dira denak usaia xaramela aldiarentzat.

Zer: Sagardo Eguna, 25 sagardo en das-tatzea, eta pintxoak laguntzeko.

Non: Baionako Espainiako atean.

Noiz: Larunbatean, 18:00etan dastatzea, eta gero, 21:00etan Patxi Perez eta musi-kariak baita Kiki Bordatxo.

Antolatzaileak: Baionako ikastolak, Gau Eskola eta Gure Irratiaren alde, Baionako eta inguruko peñak eta elkarteak lagun.



Gizon bat sagardoa zerbitzatzen iazko Sagardo Egunean. Aurtun, 25 sagardo desberdin dastatu ahal izango dira. BOB EDME